

Iparaldean duen tokia sendotuko du

EROSKI-K HITZARMEN BAT EGIN DU SABEKO BANAKETAREKIN BIZKAIAN DITUEN HAMAR SUPERMERKATU EROSTEKO

- Honako udalerrri hauetan daude dendak: Basauri, Bilbao, Erandio, Galdakao, Getxo eta Santurtzi
- EROSKI bere gain hartuko ditu saltoki horietako langile guztiak
- Hamar supermerkatu horiekin, EROSKIren asmoa da 75 irekieratara iristea 2020an

Elorrio, 2020ko martxoaren 10a.- [EROSKI](#)k hitzarmen bat egin du Sabeko Banaketarekin, [Simply](#) izeneko hamar supermerkatu erosteko Bizkaian. Honako udalerrri hauetan daude saltoki horiek: bat Basaurin, bost Bilbon, bat Erandion, bat Galdakaon, bat Getxon eta beste bat Santurtzin; gutxi gorabehera, 8.500 metro koadroko azalera komertziala hartzen dute denak batuta.

EROSKI beste pauso bat eman du bere presentzia erreferentziazkoa eta garrantzizkoa den eskualdeetan indartzeko; kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Operazioa gauzatzeko, Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeak onartu behar du. Onartu ondoren, berriz, EROSKIren asmoa da dendak berritzea eta Zurekin eredura egokitzea; hala, elikadura osasungarria eta jasangarria sustatuko ditu, ardatza tokian tokiko produktuetan eta sasoian sasoiko freskoetan ipinita eta arreta pertsonalagoa emanda.

EROSKI eutsi egingo die erositako saltokietako lanpostu guztiei, lehengo lan baldintza beretan.

"Hamar supermerkatu hauek erosita, taldeak hurbilago izango du 2020an 75 denda irekitzeko helburua. Operazio honekin, are gehiago indartuko dugu Espainia iparaldeko eskualdeetan dugun sarea, hala denda propioak irekita nola frankiziatuak eginda; gainerako eskualdeetan ere hazten jarraituko dugu frankizien sarea lehenez gain zabaldua. Ia 300 profesional batuko dira EROSKIren taldera erronkak eta etorkizuneko lorpenak partekatuzeko", azaldu du EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.638 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)